

MURRIZKETARIK EZ !!! LOMCEri EZ!!!

AURREKONTU DUINAK HEZKUNTZARAKO!!!

Aurrekontuak

Eusko Jaurlaritzak, PNVren eskutik, aurkeztutako aurrekontuetan argi uzten du zer nolako bidea jarraituko duen, batetik jendartearen behar eta nahiei muzin egin inposaketan bidez eta, bestetik, murrizketen bidean sakontzea. Aurrekontuetan irakaskuntzari dagokion partidan 2012koekin alderatuz, %9ko murrizketa izanen da. Azpimarratzekoak:

- Langile gastuak 34,7 milioi gutxiago (-%2,9)
- Funtzionamendu gastuak 21,1 milioi gutxiago (-%14,2)
- Diru-laguntzak familia, enpresa eta erakundeei 140 milioi gutxiago (-%40)
- Inbertsio errealak, obrak, ... 35,3 milioi gutxiago (-%45,6)

Murrizketak

Eusko Jaurlaritzak segurtasun juridikoaren izenean Espainiatik inposatzen den oinarritzko legedia onartzeko asmoa erakutsi du. Irakaskuntzaren kasuan Auzitegi Konstituzionalak irakats-orduen eta gelako ume kopuruari buruzko epaiaren zain gaude, ohi duen bezala Estatuko Gobernuari arrazoia emango balio, Eusko Jaurlaritzak duen posizioa ikusirik hemen murrizketa horiek ere aplikatu egingo dira. Ondorioz, irakaskuntzan milaka lanpostu galdu egingo dira eta hezkuntzaren kalitatea izugarri okertuko da, lan-kargen eta geletako umeen pilaketak emango baitira.



Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak bere kabuz beste hainbat murrizketa aplikatu ditu, batzuk gutxiengo sindikalarekin adostuta. Hala nola, ordezkapenak egiteari

uztea edo hauek berandutzea, soldata jaitsierak, hezkuntzarako medioen murrizketa, gaixotzeko eskubidea mugatzea....

Ordezkapenen kasuan, berandu betetzeak kalte bikoitza sortzen du. Langileei lanaren galeragatik eta ikasle eta familiei eskuratu behar duten hezkuntza zerbitzuan sortzen den galera. Zaintzen bidez hezkuntza kalitatea mantentzen dela esatea iruzurra egitea baita.

Lomce

Madriletik eta gobernuaren ideologiaren mesedetan garatzen ari den hezkuntza legeak tramitazioan jarraitzen du une honetan. Hego Euskal Herrian ez dugu halako legerik eskatu, herritarrok ez dugu lege honen inguruan parte hartzerik izan, lege honek gure herriaren errealitatea ez du kontutan hartzen.

Egindako mobilizazioek zein ikastetxetako asanbladek argi erakutsi dute lege hau herritarren iritzia kontra garatzen ari dela. Bide honetan salaketarekin jarraitu ez ezik gure ustetan Hezkuntza sistema propioaren norabidean urrats berriak eman behar ditugulakoan gaude, Euskal Herrian geure hezkuntza garatu ahal izateko.

Langileon erantzuna

Asko dira ikastetxeetan burutzen ari diren salaketa ekimenak, bertakoen inizatibaz edota beste eragileen proposamenei jarraituz: elkarretaratzeak, ostiral beltzak, gurasoekin bilerak, mozioak udaletxeetan ... Horiekin bat egiteaz gain, tokian tokiko erantzunak indartzeko deia luzatu nahi diegu langileei.

Era berean, **datorren hilaren 19an ikastetxe guztietan ekimen edo mobilizazioak egiteko deia luzatzen dugu**, jasatan ari garen egoerari erantzun bateratua emateko asmoz.

